

EUSKARA BATZORDEAK 2018ko MAIATZAREN 3An IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

Marisa Aldamizetxebarria and (Euskara Zinegotzia)
Igone Olabarria and.
Pili Ibarra (Berbalagun/ Aek)
Luis Ortuzar jn. (Gernika BHI Institutua)
Ziortza Polin (EAJ)
Pernando Basterretxea (Busturialdean Euskaraz Bizi)
Xabier Goiria (URE)
Luis Ortuzar jn. (Txara-Txara elkarte)
Estiñe Astorkia and. (Hitzargune/Euskara dinamizatzailea)
Idazkaria:
Bittor Zarrabeitia jna. (Euskara Teknikaria)

Hasiera ordua: 18:30
Amaiera ordua: 20:15

Ezin etorria zuritu dutenak:

Leire Zabala and.
Rosa Okariz and.

1).- Irudikatu 2023 urtean Gernika-Lumon euskararen egoera zelakoa izatea nahi dugun.

Ikusirik bildutakoen kopurua aproposa dela talde bakarrean aritzeko, helburu estrategiko bakoitzeko 2023koa irudikatzeari ekin zaio talde bakarreko dinamikari eutsiz.

Erabakia.- Irudikapenerako helburu estrategiko bakoitzeko finkatu direnak I. eranskinen agertzen dira..

Bigarren saio honetarako aurreikusitako dinamika denboraz ere neurtuta egon den arren, parte hartzaileak zabal eta gogoz aritu dira lehenengo puntuaren inguruan eta horri utzi zaio denbora zabal, ia ordu eta erdiko ekitaldia.

Beraz, aztergaietako bigarren puntua (“2.- Horretara iristeko, zehaztu zer falta den eta zer egin dezakegun desberdin”) hurrengo batzarrerako uzte erabaki da.





Bestalde, hurrengo batzarrerako maiatzaren 31 finkatu da, orain arte Batzorderatu diren gehienei hobeto datorkiena eguna delako.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Izp.: Euskara Zinegotzia
Marisa Aldamizetxebarria

Izp.: Euskara Teknikaria
Bittor Zarrabeitia

